

Nu!

www.noaia.com



Santioak lehen,
Sanestebanak ondoren



Gipuzkoako bigarren errauste planta

Aritzetan egingo da



Alkartasuna Kooperatiba

Usurbildik 5 minutura, Ugarte
baserriaren atzeko aldean,
Zatoz, oso urbil gaude!



- Bertako Kalitatezko Produktuak:
Gazta, yoghourta, olioak, sagardoak,
txakolina, eztiak, e.a.
- Abere elikadurarako produktuen horniketa
eta nekazaritza produktuen horniketa.

Ugarte industrialdea, 12 - Telf: 943 36 11 14
E-mail: alkartasuna@fcae.org



BARAZAR OSTATUA-JATETXEA

- Logelak bere komunekin
- Afariak egunero
- Bazkariak igande eta jalegunetan


*Santio jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!*

TELF: 943 36 33 58

Arbitza bidea,
Zubieta



TXIMINIA ALTZARIAK



ALTZARIAK AUKERAN

1.000 metroko erakusketa- Prezio harrigarriak
Punta-puntako markak %50ean: Alzari-trinko, lastaira eta
lastaira-azpikoen aukera haundia
Sofa eta besaulkiak, logelak, aulkiak, mahaiak
Ehundaka altzairu %50ean
Mailatu txikiekin eta gabekoak

Osinaldepoligonoa

Tel.: 943 37 09 66

Txirrikitutik

Irudian ikusten duzuen aspaldiko argazki hau Paisajes Españoles-ek 1959. urtean airez ateratakoa da. Aginaga garbi ikusten da, auzunearen erdigunetik N-634 errepede nagusia pasatzen da. Aipatzekoa da baserri eta etxeen inguru guztian dauden zuhaitz mordoak, baratza eta zelai zabalak. Ez al da zoragarria?

Gaur egun argazkian agertzen diren eraikin gehienak bertan jarraitzen dute; batzuk bere horretan mantentzen dira, beste batzuk ordea aldaketaren bat edo beste izan dute. Hortxe ageri dira Eizazpi, Eiza, Apaizetxea, Eliza zaharra (berria oraindik eraiki gabe zegoen), hilerria, Gomeztegi, Etxe maite, Arpidegi, Etxebeste, Soroa, Errasti, Lastaola, Daldagorri,... eta nola ez, auzuneko erdiguneko plaza dotorea (gaur egun Aristitxo frontoia dagoen lekua).

Urteen poderioz etxe eta bestelako eraikuntza mordoak eraiki da Aginagan ere. Eta honek inguru guztian aldaketa handiak eragin ditu. Bada ordea, aldatu ez den zerbait. Edo behintzat oso gutxi aldatu dena. Zer? Errepide nagusia noski. Egungoa, ordukoa baino hobeto egongo da baina,



EGILEA: PAISAJES ESPAÑOLES, AGINAGA, 1959
JABETZA: NOAUA!K.E.

Eizako errebueltak hortxe jarraitzen du. Eta ez dugu ba, orduan hortik pasako zen kotxe kopurua egungoarekin konparatuko, ezta?

Zalóa Arnaiz Ibaguren

OHARRA: Herriko argazki zaharren bat etxean baduzu eta NOAUA!ko Txirrikitutik atalean ateratzea nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan, NOAUA! Kultur Elkarteke egoitzan gaude. 943 360 321 telefonoan edo fototeka@noaua.com e-postan aurkituko gaituzu.

N u !

Argitaratzailea : *Noaua!* Kultur Elkartea

Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02

elkartea@noaua.com

www.noaua.com

Koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Publizitatea: Maialen Saez, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Oskar Santamaria, Maria Angeles Arruti, Maria Jesus Urbietia, Jone Eizmendi, Ekiñe Olaizola, Iñaki Labaka, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfonto Vidal, Alazne Begiristain, Ana Urdangarin, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Eneko Harreguy, Salome Portu, Pello Aranburu, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Aloña Pulido, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Iñaki Agirresarobe. Denborapasak: LUMA, O.E.

Idazkaria: Alaitz Aizpurua.

Bazkidetza: Aitziber Aranberri

Erredakzio Kontseilua: Imanol Ubeda, Zalóa Arnaiz, Maialen Saez, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobietia, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldiakarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteke jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

AZALA

Erraustea izan da egun hauetako hizpide bakarra

Aurkibidea

BERRIEMAILEAK KALEJIRAN **6. ORR.**

USURBILGO ERREKAK AZTERGAI **10. ORR.**

LAPURRETAK SAHIESTEKO HAINBAT AHOLKU **13. ORR.**

ERREPORTAJEA **14. ORR.**

Errausketaren gaiak zeresan ugari eman du azken asteotan. Azkenean, Aritzetako Loistegikogaina izan da kokagune aukeratua.



INFORMAZIO UGARI GURE WEB GUNEAN **17. ORR.**

LEHIAKETA ETA DENBORAPASA **19. ORR.**

UDAKO GOARDIAKO FARMAZIAK **20. ORR.**

EKTITALDI GARRANTZITSUENAK AGENDAN **22. ORR.**



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldiakaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldiakaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

Zutabea !



Zergatik ez kontsultatu herritarrekin?

AINHOA AZPIROZ

Azkenaldian herriko koadrila eta etxe askotan dabilen gaia da erraustegiarena eta errausketa-arena. Jakin-min handia dago, edo hobeto esanda, kezka. Bai, usurbildarrok erraustegiarekin kezkatuta gaude. Eta ez da gutxiagorako, entzuten dena entzunda... dioxinak, gasak, tximinia erraldoia, minbizia, inork ez duela bere etxe ondoan nahi... Informazio gose gara, eta nahi baino gutxiago jasotzen dugu agian.

Baina ez gara informazioa jaso eta gure artean eztabaidatzearekin lasaitzen. Iritzia emateko gogoz gaude eta horretarako aukera badago: herri kontsulta bat egiteko posibilitatea badago.

Udalak hartzen dituen erabaki guztietan herri kontsulta egitea ezinezkoa izango litzateke. Baina herritar guztioi eragiten diguten erabaki garrantzitsuetan bai. Adibidez: errepide berriak egiterakoan, eraikin edo base-ri esanguratsuak bota edo ez erabakitzerakoan, herria

urbanistikoki aldatzerakoan, tabernen ordutegia finkatzerakoan, garraio publikoaren eskaintza definitzerakoan... Herriko kontuetan eta Gipuzkoako eta Euskal Herriko kontuetan kontsulta dezakete agintariak herritarrekin. Eta errausketaren gaia denon artean erabaki beharrekoa iruditzen zait. Horrelako gai potolo eta kezagarrien aurrean zeresana badugu. Ez dira herritarroi handiegi geratzen zaizkigun galtzak.

Ez zaigu eskatu behar iritzia lau urtetik behin bakarrik. Bestela, Jose Saramagoren *Ensaio sobre la lucidez* liburuan gertatzen dena pasako da egunen batean. % 83k botu zuria eman zuen haustekunde batzuetan. Agintariak zer egin ez zekitela gelditu ziren eta erruduna bilatzeari ekin zioten, nahiz eta errudunik ez egon.

Mediku kontsultak kobratzen hasi edo ez eztabaidatzen ari dira Katalunian. Hemen ez dutela kobratuko erabaki dute. Baina herri kontsulta... garesti dago gero!

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai

Ika-mika !

San Esteban jaiak

Bejondiola, astebururik ez aurten-go Sanxtonetan! Egitaraua argitaratzeke egon arren, ahozahokoa da nonbait aurre hartu diguna eta astebururik eza jaien barnean, zer esana izateko nahikoa batzuek.

Zertxobait gehiago azaldu nahi nizueke, nire izenean eta ez Jai Batzordearenean.

Aurreko asteburua, Santio jaiei dago-kie, hala adostuta dago aspaldidanik, beraz, San Esteban jaiek asteburua izan dezaten, astebetetz luzatu beharko genituzke festak.

Elizak uzten digun apaizetxea da gure instalakuntza bakarra (askok ez duzue jakingo bere egoera tamalgarria eta arriskutsua dela, kanpotik itxuroso badago

ere). Bertan ibiltzen garenok ondotxo dakigu konturatzerako gainera eroriko zaigula bigarren pisuko zolua. "Atzeko" tabernak xarma berezia du, eh? (lasai arriskutik at dago eta), baina hori gau-txorientzat da eta plazan txosna jartzea dugu beste aukera.

Txosna hau, 24 orduz zabalik dago (ixteko aukerarik ez baitaukagu), denbora guzti horretan norbaiten zaintzapean egon behar du gure tabernak eta hamar bat gazte gara lanean dihardugunak. Astebetetz jaiak luzatuz gero eta kontuan izanda aurretik eta ondoren egin beharrekoak, ez al zaizue iruditzen "gutxitxo" garela?

Ez naiz jaiak luzatzearen egitaraua, edozein ekintzarekin betetzekoaren

aldekoa, are gutxiago iritsi ezinean ibiliko bagara. Batetik jende falta dugulako eta, bestetik, iturri ezberdinetatik, eskertu beharreko diru laguntzak jasotzen ditugun arren, tabernatik atera behar dugulako gainerakoa. Antza, San Estebanak ere xarma galdu dute, gero eta jende gutxiago hurbiltzen baita.

Jaiak denon gustokoak izan daitezten saiatzen gara, niri beti iristen zaizkit kritika txarrak.

Kritikatzea errazena da. Jakin, atek zabalik dituzuela festak antolatzeke eta esku bat botatzeko, gogorik izanez gero. Ah! ez da beharrezkoa gaztea izatea.

Ainhara Ullate

Erraustegia dela eta...

Zaborrak erraustean aukerak eztabaida franko piztu du baina erabakia hartua dagoela dirudi, Usurbil izan daitekeelarik erraustegia eraikitzeko kokagunea. Auzi hau dela eta, guri ere zenbait hausnarketa egiteko garaia iritsi zaigu.

Gizakiok sortzen dugun zaborra ezkutu edo desagerrarazteko erabaki erraz eta ekonomikoenak hartu izan dira historian zehar, ahal izan den heinean. Herrialde nekazari tradizionalan, gure baserrietan adibidez, edo Hirugarren Munduko herri gehienetan, zaborra urria izanik, ongarri gisa erabiltzen da. Haatik, Mendebaldeko herri garatuetan, hazkuntza industrialak eraginda, urte gutxiren buruan "aurrerakoi" eta kontsumismo amaigabea oinarritutako gizartea eraiki da, "erabili eta bota" joera kulturala gure artean ezarri delarik. Ondorioz, hondakin solido ugari sortzen ditugu -pertsone bakoitzak eguneko lau kilogramo- gehiena inorganikoa eta biodegradable ez dena. Zabortegiak bete ditugu eta errausteta hautatu da hirietako hondakin solidoak ezabatzeke. Herritarron artean, ordea, erraustegiak mesfidantza eta beldurra eragin ditu, ingurunearen eta eguratsaren kutsaketa baitakar eta horren guztiaren ondorioz, gure osasuna eta etorkizuna jokoan dardela pentsatzen dugulako.

Azkeneko hogeita hamar urteetan gai honetaz informazio zabala dago eta eztabaida gizarteratu egin da, batez ere, maila tekniko eta zientifikoan. Esku artean mila adituen txosten eta ikerketa zientifiko ditugu: asko, oso zehatzak eta argiak dira; beste hainbat, garia eta sasia bereizten ez dituztenak, noski; gezurrik esan gabe egia osoa esaten ez dutenak ere badira.

Erraustegien emari kutsakorra

Labur esan daiteke, erratu gabe, erraustegiko tximinitik botatzen diren emariak oso kutsakorrak direla eta osasunerako kaltegarriak direla ere egiaztatua dago. Barreiatutako elementu anitzen artean kaltegarrienak ondokoak ditugu: gas konposatu toxikoak (mono eta dioxido karbonoak, hidrogeno kloruroak, nitrogeno oxidoa, azufredunak etab.), metal astunak: merkurioa, kadmioa, kromoa, beruna, artsenikoa eta berilioa. Hauek gure

osasunean eragin ditzaketen kalteak hemen zerrendatzea luzeegia litzateke.

Elementu organiko kloratuak ditugu kezkarrienak, osasunaren aldetik toxikotasun handia dutelako eta hauen artean aipagarrienak Dioxinak eta Furanoak dira. Dioxina hauek ez dira produktu naturalak (basoen suteagatik ez bada), artifizialki sortzen dira prozedura termikoa 800°tik behera hondakin organiko eta klorodunak nahasian erretzerakoan. Hauen sorburu nagusiak daude: hondakin solidoen erraustetan, ospitaletako hondakin organiko eta medikamentuak erraustean, prozedura petrokimikoetan, organokloratu, intsektizida eta metalurgian, papera kloroarekin zuritzeko prozeduran, diesel motoreen konbustioan etab.

Tetraklorodibenzo-p-dioxina (TCDD) gehien aztertu den dioxina da, toxikotasunean ikur delako. Minbiziaren Ikerketarako Agentzia Internazionalak (IARC) animaliekin ikertu ondoren, minbiziaren eragiletzat sailkatua du eta ikerketa toxikologikoen honen ondorioak zabalak direla adierazten dute: mota ezberdineko minbiziak gain, haurdunaldian eragina duela, jaioberrietan, ugalketa sisteman, mutikoen heldutasun sexuarean, inmunitatea gutxitzean, hepatotoxizitatea... 2001ean Valentziako La Fe Ospitaleko Onkologia Pediatrikoko Departamentuak azken 25 urteetan argitaratutako azterketek egin duen ustiapen bibliografikoan gauza bera adierazten du.

Delako dioxina hauek %10 arnasterakoan eta %90 elikatzerakoan barneratzen ditugu. Elikatze katean gehien daramatenak haragia, esnekiak, arrautzak, grasak... dira, dioxina iraunkorra da eta, gainera, ez aldakorra. 1994an Europa Batuko agintariak errausteten inguruan hartu zuten erabakia dioxinen emaria 0.1 ng/Nm³ mugatzea izan zen eta horren ondorioz, erraustegi zaharkitu asko itxi egin ziren eta beste hainbat teknologia aurreratua baliatuz berriro egin ziren; hori dela eta, Europan dioxina kopurua %90 gutxitzea lortu zen. Estatu Batuetako Ingurumenaren Babeserako Agentziak aurkeztutako azken txostenean dioxinak zuzenean minbiziarekin lotzen dituen arren, ez du argi esaten errausteko lantegien eraginez direnik, PVC erretzearen ondorioz baizik.

Eztabaida zientifikoa luzea da eta hagitx irristakorra, toxikologian eta epidemiologian oso aditua izan behar da kaltearen mugak giza-osasunean, ezinbestean, non diren ezartzeko. Ez dugu inon erraustegirik nahi baina zuhurtasuna beharrezkoa da, ingurugiroari oraindano eginiko kalte guztiak ezin baitizkiogu orain honi egotzi. Hau horrela izanik ere, erraustegietako dioxinaren barreiatze emaitza maiztasunez monitorizatzea derrigorrezkoa dakusat. Zaborra erretzean %30 hondakin gelditzen da, zepia (eskoria) eta erraustak oso kutsakorrak dira, eta honentzat zabortegei toxiko berezia eskatzea ezinbestekoa da.

3B formulak indartu

Hondakinen erraustetek badute landu eta ezarri beharreko beste alternatiba batzuk: 3B formulak indartu (birziklatu, berrerabili eta berreskuratu) eta Ekoparke industrialak zabaldu gure lurraldean. Irtenbide hauek soilik ere, ordea, ez dute arazoa konpontzen, maiz ahaztu egiten baikara gizakiok garela kutsadura eta zabor sortzaileak. Sortzen ditugun hondakinekin elikatzen dugu gure osasuna eta ondorengo belaunaldia. Indar sozial eta politikoen, agintariak, osasun arduradunek eta gizarteak, oro har, arazo hau bideratzeko eta guztion burua hezitzeko eztabaida zabal eta argia etorkizunerako egitea derrigorrezkoa du.

Gizarte aurreratuaren adierazgarrietako bat ingurugiroaren errespetuan legoke. 1969an James Lovelock-ek, ekologiararen aita eta zientzilari ospetsuak, GAIA teoria proposatu zuen eta pixkanaka onartua izan da. Honen arabera, gure Lurra Planeta hau bizirik dagoen organismo osoa eta bateratua da, berrantolatzen eta kate batean autorregulatzen den gorputz bizi bat. Sistemaren urrats bati kaltea egin ez gero, osotasunaren bizitza behartzen da. Gizakia da bere garapen desio hutsalarekin organismo honen giltzarria hausten ari dena.

Ez dugu erraustegirik nahi, baina ez da arazo soilik eta honek auzia oinarritik zabaltasunez eta bere osotasunean hartzeko garaia dugula hausnartzera bidera gaitzake.

Fernando Txueka

(Kokagunea zehaztu aurretik, NOAUA!k Fernando Txueka medikuari eskatutako idatzia)



ALOÑA
LOIDI

Txokoalde

Gure auzoaren etorkizuna

Gaurkoan hainbat tokitako arazo den Gai batekin natorkizue; etxebizitzak. Duela 18 urte inguru, Udalak Zumeta Jatetxearen aurreko baratzetan hamar urteren barruan etxebizitzak eraikiko zituela agindu zigun.

Ikusirik urte batzuetara udaletxeak aurrera-pausurik eman ez zuela, auzotarrok udaletxera jo genuen berriz eta etxebizitza haiek erosteko prest zeuden 8 laguneko talde bat osatzeko eskatu zigun, berak lur hoiek bereganatuko zituela aginduz.

Horrela, auzotarren artean taldea osatu zen eta urte mordo bat pasa ondoren, garai hartan Txokoalden bizi ziren gazteek beste herrietara edo inguruko auzoetara joan behar izan dute, bertan geratzeko aukerarik izan ez dutelako, guztiok dakigun bezala ez baita etxerik egin.

Orain dela urte batzuk beste proposamen bat onartu zuen Udalak; hau da, Errota Etxea dagoen lekuan Babes Ofizialeko 10 bizitza egitea. Aukera polita litzateke azken hau gau-

zatuko balitz, izan ere auzoan geratzen garen azken gazteak, bertan bizitzen jarraitzeko beharrezkoak ditugu hainbat alditan egingo direla agindu dizkiguten etxe hauek. Geroztik neronek Udaletxeko hirigintza sailera jo dut birritan informazio bila, azkenengo aldiz iazko uztailean. Bietan ordea erantzun bera jaso dut; “uuufff... Beharbada 7 bat urte barru edo erantzunen bat izango dugu. Hobe duzu herrian datorren urtean martxan jarriko diren etxebizitzez interesatzea.” Hau dela eta, hil honen azken egunetan deitzekotan geratu nintzen Olarrondon egitera doazen etxebizitzaren proiektuaz galdetzeko.

Gauzak horrela, beldur naiz geratzen garen azken 12 gazteok Txokoaldetik alde egin beharrean aurkituko ote garen, gure auzo mai-tearekiko Udalaren utzikeriagatik.

Gaur egun, bost haur soilik daude auzoan eta besterik ezean hauek ere garaia iristen zaie-nean auzotik aldegin beharrean aurkituko dira. Zer etorkizun du gure auzoak?

Ume falta?



ANA
URDANGARIN

Kaleberri

Aspaldian nengoen errezelo batekin: Usurbilen ume gutxi zegoen kontu hori aldatua dela dagoeneko. Atera besterik ez dago kalera. Gero eta ume gehiago ikusten da kalean. Batzuk korrika, bestean saltoka, besteak txirrin-dan. Baina oinez ibiltzen ez direnak ere nabariak dira egun. Gero eta kotxe dotore eta sofistikuagoak dituzte. Akaso gidatzeko baimena beharko dugu laster horrelakoak ibiltzeko. Gero eta “kuadrila” gehiago ikusten dira lau edo bost silla eta beste bost edo sei ume inguruan dabiltzala.

Frontoian, parkeetan... nabaritzen da gero eta haur gehiago ditugula herrian. Uda iritsi zaigunean eta ikastolako oporraldian daudelarik, kaleak biziz betetzen dituzte. Garain honetan aiton amonak ere zereginak izaten dituzte bilobak zaintzen eta batzuk gustora ibiltzen dira aspaldiko jolasak gogoratuaz.

Oporretan beste aukera bat, aisiialdirako (denbora libreko) taldeak izaten dira. Duela ez urte asko, Donostian ikusten genituen motxila berdina jantzita haurrak multzoka. Baina dagoeneko badira urte apur batzuk herrian ere modu berean ikusten ditugula. Hor ibiltzen dira begiraleekin jokuak egiten, edo igerilekuan... Kaleberriko taldeak ez ezik, Zubietako taldeak ere agertzen dira eta beste herrikoak ere izan ditugu txangoren bat eginez gure herria ezagutzen.

Badirudi gero eta jende gehiagok behar dituela horrelako zerbitzuak. Aurten ere ikusi dugu haurtzaindegian moldaketak egin behar izan direla haur guztiak aukera bera izateko. Bikoteetan biek lan egiten dutelako izango da noski.

Ea ba horrela jarraitzen duen eta Usurbil urte gutxitan erabat gaztetzen zaigun.

Futbol talde berria Saizarren

Kaixo, oraingoan ere, NOAUAKo irakurle guztiei. Zer moduz joan dira San Joanak eta Santixabelak? Aurtengoan ere konturatzerako joan zaizkigu. Santioak ere laister iritsiko dira, baina iristerako baita pasa ere, hauxe marka!

Kalezarreko kronika idaztea tokatzen zaidanez oraingoan bi kontu aipatu nahi ditut:

Alde batetik, gogorarazi nahi dizuet abuztuaren erdialdera San Roke eguna ospatzen dela Kalezarren eta beraz egun hau ospatzera animatzen zaituztet.

Bestalde, bestelako kontu bat ere aipatu nahi dizuet. Aurtengo denboraldian Usurbilen mutilen futbol taldea izango dugu eta beti bezala Kalezarren dagoen Arane futbol zelaian jokatuko dute. Oraingo honetan badirudi berriz ere animatu direla Usurbilgo mutil gazteak. Esan beharra dago, mutil hauetako asko kanpoko taldeetan aritu izan direla joandako urteetan eta orain herriko taldera etorriko direla, gehienak lehendik ere Usurbilen aritu izan dira. Berriri ere herriko taldera itzultzea ez da seinale txarra izango!



Aldaketak ere izango dira: Udalak zelaia kontpontzenko asmoa erakutsi du eta bestalde zuzendaritza batzordeak herriko gazteak aritu direla ere esan didate, beraz, aldaketa hauek ere azpimarragarriak izan daitezke sortu berri den taldearentzat.

Mila esker eskeini didazuen arretagatik eta ondo pasa uda, Usurbilgo festa ondorenean izandako eguraldiaren ondoren, oraingoan badirudi uda hasi dela. Hala ere, ea lehengo urtekoa baino samurragoa den, izan ere pasa den udan izan genituen tenperaturak gehiegizkoak izan baitziren. Beste bat arte.

Kalezar



**ALOÑA
PULIDO**

Jaiak etorri eta joan

Leku askotan jaiak pil-pilean. San Isidro, San Juan, Santixabel, San Fermin, Karmengo Ama, San Franzisko eta San Esteban. Zenbat jai egun bazterretan. Festak girotu, zaletasuna piztu, martxa jarri eta umore onarekin auzotarrak elkaturik hurbildu eta ondo pasa ahal izateko.

Gure auzoan horrelako egun batzuen hutsunea nabari da, hasiera batean hasi ginen festak antolatzen. Urte batzuetan mantendu zen baina gerora bertan behera geratu zen eta egun ez dugu auzo festa girorik. Horretarako ere jendea prest egon behar du lan pixka bat egin eta festa giroan murgildu eta ondo pasatzeko zaletasuna azalduaz. Beraz santu bat aukeratu beharko dugu eta katedral txiki bat.

Gaiaz aldatuaz, urtea aurrera doala, eta uda beroa ez da uste bezain beroa izango edo ez dirudi behintzat. Hara ere inguruak lehor ditugu eta ez litzaiguke gaizki etorriko euri pixka bat. Gure auzoko belardiak ere gustora



hartuko lukete. Auzoko belardiak batetik lehor eta bestetik txakur arrastoz josita tamalez. Haurrak bertan denak zapalduaz dabilta. Txakur hauen jabeek kontu pixka bat izan dezaten eskatzen zaie, zeren zabor leku bereziak prestatuta daudenez, ardura pixka bat izatea ez litzaiguke gaizki etorriko denei.

Bestetik, eserlekuak ere faltan botatzen dira. Noizbait lortuko al dugu auzoko hutsuneak betetzea?

Atxegalde



**MARIA
JESUS
URBIETA**



ZALOA
LEOZ

Santutenea

Aurrera doa uda

Dagoeneko ikasturtea bukatu da eta uda ere badoa aurrera. Gure auzo honetan ez ditugu aukera handiak bertatik mugitu gabe, edonola-ko ekintzatan ibiltzeko. Hau da, normalean kaxkoko antolatze joera izaten dugu. Baina ez dena, ikasturtean zehar hemen ibili dira auzoko gazte-txoenak Euskal Txokoetan. Hain zuzen ere, bi taldeetan banatuta ibili dira, txikiak astelehen eta asteazkenean; eta haundienak, astearte eta ostegunean. Lehendabiziko taldean 8 ibili dira eta bigarrenen 11. Guztira 19 haur 3 eta 11 urte bitartekoak. Gurea bezalako auzo baterako kopuru adierazgarria iruditzen zait.

Esan beharra dago Euskal Txokoak aisialdiko talde bat dela baina beste helburu batzuk ere baditu zerbitzu honek. Euskararen normalizazio bide ezagunean oraindik ere badaude integrazio horretarako zailtasunik duenik eta zerbitzu honen helburu nagusietako bat hau izan da. Euskararekin egune-

rokotasunean arazoak dituzten haurrei aisialdiarekin lotuaz, bultzada bat eta errastasanak ematea.

Gurasoekin hitz egin besterik ez dago beraien nahia jakiteko. Badakite zer suposatzen duen gure herrian eta gizartean euskara ez jakitea. Gustatuko litzaieke etxean erakustea beraien seme alabei eta arazorik ez izatea, baina ezin. Euskal Txokoak euskara ikastolatik kanpo bizitzeko bide bat da; denak bultzatu behar dugun bide bat.

Guzti honen jakitun izanda, ez al du udaletxearen aldetik esfortzu bat merezi eta dagoeneko 8 urte martxan darabilgun zerbitzuak jarraipen bat? Denok dakigu zerbitzua behin kentzen denean, zaila izaten dela berriz ere martxan jartzea. Zergatik kendu horrelako ibilbide bat duen zerbitzua? Nire uste apalean, proiektu hobekoak martxan jarri bitartean mantendu beharrezkoa den zerbitzu bat da, baina noski ez gara gu horrelako erabakiak hartzen ditugunak.

Agur bero bat San Esteban alde honetatik



NEREA
AIZPURUA

Urdaiaga

Udan bete-betean sartuak bagara ere, egia esan, uztailearen lehen hamabostaldi honetan ez dugu eguraldi onik lagun izan. Aurreko urteko udan izan genituen beroez kexu baginen ere, oraingo udaz ere kexatzen hasia naiz ni behintzat. Gurean ere nabarmendu da eguraldi onaren falta, izan ere, gure parajeetan ez baita mugimendu askorik izan.

Eta uztaile hilabeteaz hitz egiten hasita eta Zubietako festak pasa ostean, laster etorriko da ate joka abuztua. Uda hasieran abuztuaren hasiera urrun gelditzen bazen ere, egunek hegan egiten dute antza eta konturatzerako San Estebanek ere gainean izango ditugu.

San Estebanetako giro ona, dantzariak, dantzaldiak, oilasko biltzaileak, jubilatuen bazkaria, etxeko txikientzako joku eta buruhandiak.... ez da ezertxo ere faltako gurean! Baina oraindik ere,



egun batzuk itxaron beharrean aurkitzen gara... Beraz, ea eguraldiak laguntzen duen eta aprobeztatu hil honetako azken egunak.


Besterik ez gaurkoz, eta hurren arte!

Jaunartze eguna

Hau da egun ederra izan zutena gure host gastetxoak. Ekainaren 6an izan zuten beraien lehenengo Jaunartze Eguna eta benetan elizkizun zoragarria izan genuela. Bertsolari, trikitilari eta gatetxoak beraiek txirula joaz, elizkizun "konpletoa".

Eliza berriz zer esanik ez dotore-dotore jarria. Ikusiko duzuen moduan argazkian, eskubian, gatetxoak belaunikatzeko lekua ikusgarri zuden lore, lazo eta guzti. Makina bat lan egin dute hori dena horrela antolatzen eta prestatzen. Eskerrak ematen dizkiet tarte honetatik denei.

Beste argazkian, berriz, Jaunartzea egin zuten haurrak ikusten ditugu, hauek dira (ezkerretik hasita): Maddi Zubeldia Bustamante, Eki Ajuria Illaramendi, Asier Aranguren Errasti, Nere Zaldua Zernuda, Eneko Bereziartua Buenetxea eta atzean, gure erretore jauna, Luis bere bi laguntzaile Aitziber eta Aritzekin.



Aginaga



**MARIA
ANGELES
ARRUTI**

Laino beltzak

Uda beroa izango zelakoan ginen... Bereziki beroa, iazkoaren ildotik. Eta ez dugu horrelakorik izan orain artean. Zerbait izatekotan nahasia, ekaiztsua, lainotsua izan da: trumoia noiz joko zain egon gara askotan. Sargoria beti ere. Hala ere, euririk ez, eta lurra lehor.

Zelaietan, udaberriak ekarritako urei esker belarretan ari dira. Lehenengo mozketan eman diote. Lurra egarri dago hala ere.

Eta ekaitzak nondik joko atezuan gu. Ez baita gutxiagorako, ekaitzak, haizeteak... Nola mendebalak astindu Zubieta, hala astintzen gaituzte beste batzuek. Eta horrela, beldurtzen gaituzten laino beltzak, iragarritakoak, ez dira euritakoak izan, kezkoak baizik. Eta horretan ibili gara, eta bagabiltza, horiek uxatu nahian. Euria behar dugu, ez kea.

Horrelako ustekabeak, asko izango ditugu aurrerantzean ere. Ingurua aldatu nahiko digute,

guri ezertxo ere galdetu gabe gainera. Zubieta lur gozoa da. Baina ez belarretarako. Bestelakoetarako omen da ona: kartzela eraikitzeke, koartela jartzeko -Loiolakoa kendu ondoren-, ... eta ez dakit zer gehiago aipatu izan den. Beste nahi gaituzte.

Gu bitartean, garaian garaikoa, festetan sartuko gara berehala. Momentuz ahaztuko dugu kezka. Eta eguraldiaz hitz egiterakoan hitzek ez dute hartuko bigarrenengo esanahirik. Euria behar dugula esatean, ez dugu pentsatuko Zubietaz ari garela, ezta Euskal Herriaz ere, belarrek hazteko behar duten zera horretaz baizik.



Zubieta



**PELLO
ARANBURU**

Usurbilgo errekek

Koxkolo erreka, Gorostidiko erreka, Sarikola erreka, Txerrierreka, Zaldierreka, Lizardi erreka, Olaberrieta, Gaztain txiki, Iturrisantu, Errekazarra, Amezker, Zorroztarrieta, Txulunbre, Intxuspe, Errekagaizto, Etar-te... ezagutzen ahal dituzu erreka hauek? Ba, denak Usurbilen daude!

Usurbilek Oria ibaira biltzen diren erreka zerrenda luzea du. Bere izena, gainera, hauei zor diela uste da, Usurbil izenak uren biltze honekin zerikusia omen du.

Honetaz gain aipagarria da aintzinatik errekek, baserri, auzo eta herri arteko mugak ezartzeko erabiliak izan direla.

Auzoarteko mugak:

- o Aranerreka, Kalezarreko muga.
- o Intxuspe erreka, Aginagako muga.
- o Amiri erreka, Zubietako muga.

Herriarteko mugak:

- o Sariakola erreka eta Koxkolo erreka, Orioko muga.
- o Olaberrieta erreka, Aiako muga.
- o Arpediegietako erreka eta Barkaiztegi erreka, Donostiako muga.
- o Abalozko erreka, Andoaingo muga.

HISTORIA

Errekak eta ibaiak gaur egun dugun paisaiaren modelatzaileak izan dira. Baina berauek ere aldaketa handiak jasan dituzte gizartearen eraldaketek eraginda.

Historiaurrean abeltzaintza eta nekazaritza iristearekin, mendi garaiak erre eta larre bilakatu zituzten eta erreka zein ibaiartzetako basoak moztu bertoko lurak erabili ahal izateko.

XV. mendetik aurrera, errekek, energia iturri bezala gero eta garrantzi han-

diagoa hartu zuen. Urak maldan behera hartutako indarrak sorturiko energia erabiltzen hastearekin batera, erreka bazterrak eraikuntzez betetzen hasi ziren, ubideak presa eta urjauzi kate bilakatu.

Hala nola Urdaiajan, Gilisagasti, Urdaiaja, Txanka eta Gohikoerota baserrien inguruan bi burdinola, errota bat, eta hauek energiaren hornitzeko bi presa eraiki zituzten.

Beste erreken inguruan ere jaso ziren hainbat eraikin; ontziolak Mapilen, Zakoten... Ainguraolak eta bi burdinola Sarikolan.

Beranduago, berriz, zetaola eta zentral elektrikoa Erroizpe errekan, haztegiak Lasaoan, apreta fabrika Sarikolan, labade-roak hainbat erreketan, etab.

Lehen uholde lautadetan, eremu arriskutsuak zirelako, errota eta olak bakarrik eraikitzen ziren. Gaur, industria eta etxeak eraikitze leku hautatuak dira. Hauetan, uholdeak ekiditeko ibai asko kanal artifizial bilakatu dira, eskaini zitzaketan baliabide eta funtzio gehienak galtuta.

Baserriaren krisiarekin batera, larreetan pinua aldatu dugu. Azken 4.000 urtetako baso azalerarik haundiena dugu, baina hauen kudeaketa kaxkarrak (pista gehiegi, matarrasak...), higadura handia, ibai askoren ubideak buztinez betetzea, errulekuak hondatu eta animalia askoren desagertzea ekarri dute.

Ongarri kimiko, pestizida eta mindak ere uren kalitatea asko murriztu dute.

Gaur egun gure erreken inguruan ez da aurreko mendeetan izandako aktibitatearik biltzen, baina honek ez die garrantziarik kentzen. Inguru gero eta industrializatu eta kaltetu honetan, hauen garrantzi ekologikoa oso kontuan hartzekoa bihurtu da.



KALEZARREKO MUGA ZEHAZTEN DU ARANERREKAK.

EKOLOGIA

Errekak espezie dibertsitate handia dute eta ekosistema oso aberats eta dinamikoak sortzen dituzte. Edozein arazori aurre egiteko eta errekupeziarako gaitasun handia dute. Ekosistema honetako parte errekaertzetako landareria da. Lurzoru heze hauetan haltza da egokien bizi oi dena. Honekin batera hurritza, lizarra, zumarra eta sahas iluna aurki ditzakegu besteak beste. Oihanpean berriz phyllitu scolopendrum, osmunda regalis iratzeak, myosotis lamottiana, hypericum androsaemum, arum italicum, saxifraga hirsuta, carex pendula, festuca gigantea edo soldamella villosa (endemikoa) landareak aurki ditzakegu. Espezie dibertsitatea mantendu nahi izanez gero baso hauek ezinbestekoak dira. Bertan hegazti askok beren habiak egiten dituzte, ugaztun gautarrek ezkutalekurako erabiltzen dute, ur kalitatearengan eragina dute (eutrofizazioa murriztu, ura fresko mantendu eta arraizentzat habitat aproposa sortzen dute). Errekabazterreko basoen beste funtzio garrantzitsuetako bat nekazaritzan erabiltzen diren ongari soberakinei bidea oztopena da. 5-10 metroko haltzadia nahikoa

L T ILL E

**ITU GINTZ G SET E GINTZ
INST L KUNTZ K**

IZTTTX K L F . (3) 3 2 35-3 33
EHF M I 21

**MIKEL
IZ GI E**

ELEKT IAT I E

el 0 1 6 , 7
R le
el 0 - 0 0 171

PATRI

JATETXEA

- Eguneroko menuak
- Plater berrimatuak
Ogiturtekoak

Tele: 943 36 27 25
Kale nagusia, 14

da nekazal alorretik galtzen den ongariaren % 90 inguru errekarara ez joateko.

Faunari dagokionez, baso hauetan, intsektuak, hegaztiak, anfibioak, etab. aurki ditzakegu. Anfibioren atalean gainera ezin dezakegu aipatu gabe utzi orain dela urte batzuk Mendizorrotx inguruan aurkitu zen hyla meridionalis edo zuhaitz- igela. Igel hau Basa eta Itsas Fauna eta Florako Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan jaso dago. Oso igel kuriosoa da. Hezetasuna, zerua, tenperatura eta baita umorearen arabera kolorez aldatzeko gaitasuna du.

Ekosistema hauek hainbat espezien

habitata eta naturaren zikloa mantentzeaz gain korridore funtzioa dute.

Garrantzi ekologiko honetaz gain ingurune natural hauek beste erabilera batzuk ere badituzte.

AISIALDIA

Erreka inguruak aisialdirako oso leku atseginak dira. Udararen freskotasuna ematen digute. Bertan kirol-arrantza, jolastu eta busti gaitezke eta baita naturaz gozatu ere.

HORNIKETA

Erreketako ura edateko edo nekazari-

tza bai abeltzaintzarako erabil dezakegu.

Guzti hau horrela izatea posible da baina denon esku dago errekek bizirik mantentzea. Poluzio urbanoa, nekazaritzako poluzioa eta poluzio biologikoa ekiditea. Honetarako beharrezkoa da ibai- ertzetako landaretza berreskuratzea. Azken finean guztion esku dago naturarekin errespetuzko harremana izatea.

Atal honen egileak: Ametza Larrañaga, Aitziber Matxain, Harkaitz Rezola, Iker Manterola. Usurbilgo Udalaren Nekazaritza eta Garapen Ekonomiko Sailaren babesarekin.

Konpostajea, alternatiba egokia

Gure bizi maila hobetzen dugun neurrian gero eta hondakin gehiago sortzen dugu. Arazo honen aurrean norberak badu zer egin: gutxiago gastatu, zaborrak birziklatzeko ontzietan jaso, eta abar. Ale honetan etxean sortutako hondakin ustelkorak erabiliz, modu errazean konpostaiaren bidez lurbeltza sortzera gonbidatzen zaituztegu.

Lehenik eta behin, zer konposta dezakegu? Edozein gai ustelkor: fruta azalak, janari soberakinak, hostoak, arraultz azalak...

Eta nola egin dezakegu? Konposta egitea gai ustelkorak pilatu eta "usteltzen" uztea bezain erraza da. Hala ere, modu azkar eta usain txarrik gabe egiteko, zenbait gauza kontuan hartu behar dira: lehenik, konpost pila egiten hasteko, oinarrian lur bizia eduki behar du.

Bigarrenik, ura eta airea neurrian eduki behar ditu, ur gehiegi izanez gero usain txarrak sor ditzazke, eta lehorra egonez gero berriz prozesu osoa geldituko litzateke.


Konpost aldi bakoitzak 2 fase ditu

Degradazio eta deskonposizio aldia: konpost pila asko berotzen da fase honetan, 70 °C tara arte iritsi daitezkeelarik. Aldi honek bi hilabete inguru irauten du.

Ontze aldia: Lehenengo aldia igaro ondoren, seigarren hilabeteraino hartzen du konpostak ondu eta erabilgarria izan arte. Fase honetan, konpost pila ez da horrenbeste berotzen eta zizare eta bestelako ornogabeen ugaltzea gertatzen da.

Konpost aldi guztian zehar, hiru-lau astetik behin konpost pila desegin, jiratu, beharrezko balitz ureztatu, eta konpost pila berriro egingo litzateke.


Hau dena egin eta 6 hilabeteren buruan etxeko lore landareentzako izan litekeen lurrik onena izango duzue eskura. Beraz, badakizue, hasi lanean!



MAHUKA

G z n t m kum zk n
m k rr uzt
h m n urktuk uzu

3tx st k l ,3
r j 3 3 11



TXIRIBOGA TABERNA

ntx k, k t k
t l t r k n n t u k

Irazu kalea, 3 Telf: 943 36 13 98

Motzaren oroimenez



JOXE MARI ARRIAGAK, MOTZAK, HERRITARREN ETA LAGUNEN OMENALDI BERDA JASO ZUEN UZTAILAREN 1 BAN. HAITZAUNDIN AIRERATU ZITUZTEN BERE ERRAUTSAK.

Jaien balantzea, uztailearen 27an

Atzean geratu dira Santixabelak. Hala ere, Jai Batzordeak badu azken zeregin bat: jaien inguruko hausnarketa burutzea. Deialdia uztailearen 27rako egin da.

Udal liburutegian biltzeko deia egin zaie Jai Batzordeko kideei: uztailearen 27an, arratsaldeko 19:30ean. Dagoeneko galdera sorta igorri zaie Jai Batzordean parte hartu dutenei eta baita udal-zerbitzu buruei ere. Galdera sorta erantzuteko epea uztailearen 21ean amaitu zen. Uztailearen 27ko bileran, ordea, txosten baten bidez azalduko dira bildutako iritzi eta iradokizun guztiak.

Jai Batzordea irekia denez, gainontzeko herritarrek ere hurbiltzeko aukera dute. Gure web orrialdeko eztabaida foroan ere, noaua.com orrialdean, iritzia emateko aukera dago.

San Roke Egunean pentsatzen

Abuztuaren 16an Aospatu ohi da San Roke Eguna. Kalezarren jaio edota bizi direnentzat, egun berezia. Aurten, astelehenez egokitu denez, bezperan, Ama Birginaren egunean egingo dira San Rokeko ospakizunak: herri bazkaria eta erromeria, besteak beste. Ondo pasa!



Yoga ikastaroa Aginagan

Datorren ikasturtean ere, yoga ikastaroa emango da Aginagan. Astelehen eta asteazkenetan, arratsaldeko 20:00etatik 21:30era. Egun bakarerrako eman daiteke izena edota bi egunetarako. Interesatuta bazaude, Arrate Egoitzara jo (943 366 340). Abuztuaren 31n amaituko da izena emateko epea. Irailaren lehen astean antolatuko dira taldeak, beti ere, izena ematen duen jendearen arabera.

TABERNA-JATETXEA NTXET

EGUZKITZ
2.17 USU
TEL. 3373

- E un r k m nu k
- t r t k k
- l t r K n n tu k

ITURGINTZA

J SE
NGU EN

TEL. 3372

SE IG FI
TNGFI
OSU
TEL. 943 366 340
IN YST I EG
I C KI SE JC FI
K MOSEVEN IN EM XET



K m

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97



ANDONI PINTURAK

Fotxada eta
barnelantetan Ezezializatua

C/Etxeberri, 2
(kaleazar)
Usurbil

Tel.: 943 361 318
Móvil: 605 702 517

Lapurretak sahiesteko hainbat aholku

Ekainaren 29ko gauan izan zen. Alarma-sistema eta ate nagusia txikitu eta gero, lapurrek Alkartasuna Kooperatiban sartzea lortu zuten. Bulegoa izan zen kaltetuena. Biltegikoa ez zuten apenas ikutu. Antza, bulegoko diruaren bila sartu ziren. Baina ez zuten gauza handirik eraman, kanbioetarako gorde ohi den diru apurra baino ez. Udan lapurretak ugaltu ohi direnez, horrelakoetan eman ohi diren aholkuak luzatu nahi dizkizuegu.

ETXEAN

- Kanpora bazoaz, ez esan jendaurrean. Norbaiti tarteka gutunak jasotzeko eta pertsianak zabaltzeko eskatu. Eman norbaiti telefono zenbaki bat eta helbide bat.

- Atea giltzaz itxi beti, kreditu txartelarekin edo beste objekturen batekin ireki ez dezaten.

- Ez utzi balio handiko objektuak hutsik egongo den etxe batean. Saillkatu objektu hauek eta gorde erosketak fakturak.

- Ez utzi kanpoan egongo zarela dioen mezurik erantzungailuan.

- Hutsik dauden etxetan zaratak



KOOPERATIBAN, KALTE HANDIENAK BULEGOAN EGIN ZITUZTEN.

nabaritzen badituzu jakinarazi Udaltzaingoari.

- Giltzak galduz gero, aldatu sarraila.

IBILGAILUAN

Automobiletatik objektuak lapurtzea gaur egungo beste delitu ohikoenetakoa da. Gerta ez daitezen, oinarrizko neurri jakin batzuk har ditzakegu:

- Ez utzi baliozko objekturik ibilgai-

luaren barruan eta agerian. Eraman itzazu zurekin, bestela, maletegian gorde.

- Ahal dela ez aparkatu jende gutxi dabilen lekuetan, ezta leku ilunetan.

- Lapurreten aurkako sistemak erabili. Oinarrizkoenak badira ere, disuasio-eragina dute eta lapurreta are zailago egiten dute, lapurrak "bete-beteen" harrapatze-ko aukera eskaintzen baitute.

- Ibilgailuarekin herrigunetik zoazenean, atek itxita eraman kanpoko norbaitetik atek irekitzea eragozteko eta, batez ere, maletegia irekitzea eragozteko.

POLTSA-LAPURRAK

- Banketxean dirua atera baduzu, gorde ezazu diru hori kalera atera aurretik.

- Merkataritza gunetean, garraio publikoetan, oinezkoentzako pasabideetan... ez fidatu gertuegi jartzten zaizkigun pertsonekin. Garraio publikoetan ere arreta zorroztu behar da. kontaktu fisikoak eta bultzadak aukera ona dira diru-zorroak lapurtzeko.

- Tirakadaren bitartez lapurretan egin ez diezaguten eraman beti kontrolpean poltsa edo bestelako objektuak. Arreta jarri espaloitik gertu eta astiro datozen ibilgailuei.

Telefono deien bidezko iruzurrak

Iruzur egiteko tresna baliogarria bilakatu da telefonoa. Usurbilen, era honetako iruzurrak ugaritu egin dira azken hilabeteotan. Adi, beraz, etxean jasotzen diren telefono deiekin.

Behin baino gehiagotan eman den kasua da hauxe. Correos-en edo postazerbitzu baten deia jasotzen baduzu, kontuz. Trikimailu baten aurrean egon zaitzake. Bereziki, telefonoaren bestaldean, "zure etxetik pasa gara gutun bat uztera baina ez zinen" entzuten baduzu. Segidan, iruzurgileak, gutuna berreskuratzeke telefono zenbaki bat eman ohi du. 803, 806 edota 807 zenbakiak hasten bada, iruzur baten biktima izan zaitzake. Correos posta zerbitzuaren enpresaren izena erabiliz, telefono deien bidezko iruzurra egiten dabilta azken aldi. Telefonoz etxera deitzen dutenek diote, Correosen dagoen pakete bat

